

Unai Lopez de Vergara Vicente-k bere tesia irakurri du

2014/04/14

Apirilaren 11n, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Unai Lopez de Vergara Vicente Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Curado Microondas de Resinas Furánicas Reforzadas con Fibra de Basalto: Caracterización a Fuego y a Impacto eta tesi zuzendariak: M^a Asunción Sarrionandia eta Koldo Gondra. Gainera Bikain CUM LAUDE kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Jesús Alfredo Güemes Gordo (Universidad Politécnica de Madrid (UPM)) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Ibon Aranberri Askargorta (GAIKER Zentro Teknologikoa) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Alberto Lopez Arraiza (Universidad del País Vasco) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Jose Luis Vilas Vilela (Universidad del País Vasco) Dk. Jn.
- Idazkaria: Laurentzi Aretxabaleta Ramos (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi honetan iturri natural eta berriztagarriko erretxina furanikoen azterketa burutu da, zeinak mikrouhin teknologiaren bitartez material konposatuen garapenean erabili dira. Alde batetik, erretxina furanikoa aztertu egin da, karakterizazio kimiko eta erreakzio mekanismoen azterketa zinetikoaren bitartez. Bestalde, basalto zuntzez indartutako erretxina furanikoko matzriedun material konposatuak fabrikatu dira, energi baxuko talka portaera eta suaren aurkako portaera ebaluatzeko.



Unai Lopez de Vergara Vicente-n tesia